


Autobabeseko oinarrizko gida

Prebentzio- eta jardun-kontsignak
eraikinetan gertatzen diren
larrialdi-kasuetan



Autobabeseko oinarrizko gida

Aireportuak **Autobabeseko Plan bat** du, eta pertsonen eta ondasunen gaineko arriskuak prebenitzea eta kontrolatzea, eta gerta daitezkeen larrialdi-egoerei erantzun antolatua ematea da planaren helburua.

Dokumentu honetan bildutako jarraibideak betiere baliagarriak izango zaizkizu larrialdietan prebentzioko eta jarduteko gida gisa.

Aireportuan ezarritako neurri guztiak, gida honen elaborazioa barne, zure segurtasuna hobetzeko dira.


Aurkibidea

1.	Sute bat prebenitzeko	03
2.	Larrialdi-kasuan	05
2.1.	Sute-kasuan	06
2.2.	Abandonatutako objektu susmagarriren bat aurkituz gero	06
2.3.	Leherketa kasuan edo eraikina bertan behera eroriz gero	07
2.4.	Larrialdi sanitarioa	07
2.5.	Uholdea eraikinaren barrualdean	08
2.6.	Uholdea eraikinaren kanpoaldean	08
3.	Ebakuazio-kasuan	09
3.1.	Zer egin behar duzun	10
3.2.	Zer ez duzun egin behar	11


Sute bat prebenitzeko

Sute bat prebenitzeko

Zer egin behar duzun



Ez erabili gailu elektrikorik/elektronikorik gailu horiek erabiltzea debekatuta dagoen eremuetan. Ekipoak horretarako gaitutako eremuetan soilik kargatu.




Identifikatu betiere suteen aurka borrokatzeko bitartekoak eta ebakuazio-bide posibleak.



Likido eta material sukoiren bat erabiltzen baduzu, kontuz ibili bero-iturriren batera edo txinpartak sor daitezkeen eremuren batera ez hurbiltzeko.



Ez erre eraikinean.



Lokalizatuta izan aireportuan alarmak aktibatzeko eskuragarri dauden mekanismoak, beharrezkoak direnean erabiltzeko.



Usain susmagarririk nabaritzuz gero edo sute-susmorik izanez gero, abisatu aireportuko langileei.

Larrialdi-kasuan

Zer egin behar duzun



Sute-kasuan

- Lasai egon.
- Jakinarazi aireportuko langileei eskuragarri dauden bitartekoen bidez eta jarraitu argibideei.
- Makurtu zaitez kea eta gas toxikoak saihesteko.
- Itzali argiak eta ekipiak.
- Irtetean, utzi **ITXITA** ate eta leihoak.
- Zure arropak su hartzen badu, bota zaitez lurzorura eta etzanda jiratu, errodatuz.
- Sute baten hurbileko eremu batean harrapatuta geratzen bazara, itxi ateak eta ahal bada jarri oihal hezeak zirrikituen artean, eta laguntza eskatu.



Abandonatutako objektu susmagarriren bat aurkituz gero

- Ez ukitu, manipulatu, estali edo mugitu.
- Ez bota urik edo beste substantziarik objektuaren gainean.
- Ez erabili objektutik hurbil ekipamendu irrati-transmisore bat edo bibrazioak eragin ditzakeen gailuren bat, hala nola telefono mugikor bat.
- Urrundu zaitez objektuaren ingurutik.
- Jakinarazi berehala objektua bertan dagoela segurtasun-langileei edota haien arduradunari.

Zer egin behar duzun



Leherketa kasuan edo eraikina bertan behera eroriz gero

- Jarraitu aireportuko langileen argibideei.
- Hautsi eta zure gainean eror daitezkeen leiho eta objektuetatik urrun geratu.
- Objektuak erortzen badira, jar zaitez mahai, ate edo txokoren baten azpian erorketa amaitu arte.
- Harrapatuta geratzen bazara, saiatu hautsa ez harrotzen, eta estali ahoa eta sudurra zapi batekin. Zarata egin objekturen batekin erreskatatzaileek entzun zaitzaten. Oihu egin azken baliabide gisa.



Larrialdi sanitarioa

- Jakinarazi aireportuko langileei, ahal dela gertaeraren lekuari buruzko, eta eraginpeko pertsonen kopuruari eta haien sintomei buruzko informazioa emanaz.

Zer egin behar duzun



Uholdea eraikinaren barrualdean

- Jarraitu aireportuko langileen argibideei, ebakuatu eraikina hori egiteko eskatzen badizute.
- Ezin bazara kanpora irten, zoaz eraikinaren goiko solairuetara.




Uholdea eraikinaren kanpoaldean

- Jarraitu aireportuko langileen argibideei.
- Gera zaitez eraikinaren barruko goiko guneeetan irtetea baimentzen dizuten arte.
- Itxi ateak eta leihoak.
- Ez hartu zure ibilgailua.

Ebakuazio-kasuan

Zer egin behar duzun



- Jarraitu aireportuko langileen argibideei.
- Lasai egon.
- Jarraitu ebakuazio-seinaleei, salbu eta aireportuko langileek seinaleztatutakoa ez den beste ebakuazio-bide bat adierazten badizute.
- Ez bada ezer ikusten, erabili paretak orientatzeko. Ate batera iristean, egiaztatu bero ote dagoen zure eskugainarekin, ate hori ireki baino lehen. Bero badago, bilatu beste irteera bat.
- Ke ugari egonez gero, ibili makurtuta, eta estali sudurra eta ahoa.
- Ebakuatuen Kontzentrazio Puntura iritsitakoan, jakinarazi aireportuko langileei nor falta litekeen.

Desgaitasuna duten erabiltzaileak




Jarraitu eskuragarri dituzun ebakuazio-bideetatik.

Beharrezkoa bada, gera zaitez prestatutako babesguneetan eta laguntza eskatu.

Zer ez duzun egin behar

- Ez oihu egin eta ez korrika egin, izuak arrisku handiagoak dakartza.
- Ez bultzatu.
- Ez erabili igogailurik.
- Ez okupatu eskaileren barrualdea, gorde alde hori larrialdi-zerbitzuentzat.
- Ez jarri beharrezkoak ez diren arriskuen eraginpean.
- Ez distraitu objektu pertsonalak biltzen.
- Ez atzera egin, ebakuazioa oztopatuko zenuke.



Ez erabili igogailua

